




Sketch of a building or sculpture.

Guggenheim Bilbao Museoaren
jarduerak Euskal Herriko
ekonomian izandako eragina
2006. urtean

Sarrera


1998. urtean Guggenheim Bilbao Museoak azterlan bat eskatu zuen Euskal Herriko ekonomiari egiten dion ekarpena zein zen jakiteko, bere eragin ekonomikoa aztertuko zuen metodologia urtero garatu eta aplikatuz. Eredu horrekin, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak eskualdeko ekonomian izaten duten eragin ekonomikoa urtero aztertzen da, BPGari egiten dion ekarpena, enplegua mantentzen laguntzen duen neurria eta zerga-bilketaren hazkundera kontuan hartuta. Zentzu horretan, 1998an diseinatutako eredua hobetu eta eguneratu egin da hainbat azterlan eta berrikuspen garatuz.

Eragin-eredua


Eragina kalkulatzeko, 2006an ondoko faktoreak kontuan hartu dira:

- Bisitarien gastu-perfilen berrikuspena haien jatorriaren arabera, gastu zuzenaren eta Museoaren aberastasun-sorkuntzaren eragile nagusia. Hauek dira azterlanetik ateratako ondorioak:
 - . Bilbo bisitatzeko motibazioa: inkesta egin zaien bisitarien %70 Museo bisitatzeko etorri dira espreski Bilbora.
 - . Bidaiaren antolakuntza: bisitarien %82k euren kabuz egin dute bidaia. Turista atzerritarrek gero eta gehiago jotzen dute bidai agentzietara. Izan ere, 2001ean %11k erabiltzen zuten zerbitzu hori eta 2006an %25ek.
 - . Batez besteko egonaldia: alderdi honetan hazkundera nabari da, 2001ean 1,83 egunekoa izatetik 2006an 2,68 egunekoa izatera.
 - . Museotik kanpo egindako gastua: batez besteko guztizko gastuak izan duen hazkundera aldaketa eragin du gastu horren konposizioan eta banaketan:
 - Aperitiboetan egindako gastuak gero eta pisu handiagoa du. 2006an, 52,67 eurokoa izan zen batez besteko gastua, %291ko hazkundera izan du, beraz. Era berean, janaritan egindako gastua ere handitu egin da, %106an, 2001eko datuekiko.
 - Dendan egindako erosketa eta aisian egindako gastua handitu egin dira %93an eta %166an hurrenez hurren, aurreko azterlanarekiko.
 - Bilbotik eta inguruetatik ibiltzeko bisitariak garraioan gutxiago gastatu dutela ere nabarmentzen da, gero eta gehiago erabiltzen baitute garraio publikoa, taxiaren kaltetan.
 - . Batez besteko gastu-perfilak: estatuko nahiz nazioarteko bisitari guztien gastu-perfila gehitu egin da dirutan. Inkestaren emaitzen arabera, Estatuko bisitariak 141,91 euro gastatzen ditu batez beste bere egonaldian; atzeritarrak, berriz, 368,88 euro gastatzen ditu batez beste.

GUZTIZKO GASTU-PERFILEN BILAKAERA,
Museotik kanpo, ikertutako jatorri geografikoen arabera. 1998-2006



- Biderkatzaile sektorialen eguneratzea. Berriro kalkulatu dira 2004ko Input-Output azkeneko taulak argitaratu ondoren, eta azken urteotan Euskal Herriko ekonomiaren egitura-aldaketa aditzera ematen dute. Biderkatzaile sektorial berriein –aurrekoekin konparatuta txikiagoak izanik, batez ere eragindako efektua dutenak– aurreko egindako azterlanak ondorioa izan du eragin ekonomikoari dagozkion parametroen emaitza batzuetan.



Eragin-ereduaren emaitza nagusiak

2006. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak izandako eragin ekonomikoari buruzko azterlanaren ondorio nagusi gisa alderdi hauek nabarmendu behar dira.

2006an Museoaren jardunak Euskadin sortutako guztizko gastu zuzena 233.621.942 eurokoa izan zen, bisitari bakoitzeko 232 euroko batez besteko gastua adieraziz. Gastu zuzenaren guztizkoa ondoko kontzeptu hauek batuz lortzen da:

1. 208.204.874 euro, Museoaren instalazioetatik kanpo bisitariak egindako gastuei dagozkienak, egindako inkesten emaitza gisa ateratako gastu-perfilaren arabera. Museoaren jardunaren garapenetik onura handien lortu duten sektoreak hauek izan dira:
 - Gastronomia: 95.446.752 euro jatetxe, taberna eta kafetegietan.
 - Erosketak: 29.837.656 euro denda eta komertzioetan.
 - Ostatua: 47.186.079 euro hotel, ostatu-etxe eta bestelakoetan.
 - Garraioa: 13.703.044 euro alokairu, gasolina, bidesari, txartel eta abarretan.
 - Aisia: 22.031.343 euro zinema, antzoki, beste museoetako bisitaldi eta abarretan.
2. 7.843.989 euro, Museoaren instalazioetan bisitariak egindako gastuei dagozkienak: sarrerak, gidaridun bisitaldiak, Denda-Liburudendako erosketak eta kafetegian eta jatetxean egindako gastuak.
3. 16.886.789 euro, enpresek egindako gastuei eta Banakako Kideek eta Kide Korporatiboek egindako ekarpenei dagozkienak, diru-laguntzak, ekarpenak eta bestelako diru-sarrerak.
4. 686.290 euro, Museoan ekitaldi bereziak antolatzetik ondorioztatzen diren gastu zuzenei dagozkienak.

Beraz, eta efektu zuzenak, zeharkakoak eta eragindakoak kontuan hartuta, 2006. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak 211.633.296 euroko aberastasuna sortu dute BPGan, 28.822.339 euroko diru-sarrera gehigarriak Euskal Ogasun Publikoentzat eta 4.232 enplegu mantentzen lagundu dute.

Ondoren, Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan izandako eragina agertzen da 1997ko urritik 2006ko abenduaren 31ra:

Euro	1997	1998	1999	2000	2001	2002
Eragina						
Gastu zuzenak	40.568.317	190.400.635	202.799.514	191.903.165	149.724.135	143.706.595
BPG sorkuntza	31.517.075	147.921.099	157.555.323	149.087.063	168.331.470	162.327.827
Enplegua (1)	832	3.906	4.161	3.937	4.415	4.265
Sarrerak Ogasuna	5.871.888	27.562.415	29.359.441	27.784.790	26.949.383	25.988.685

Euro	2003	2004	2005	2006	GUZTIRA
Eragina					
Gastu zuzenak	153.745.225	163.711.085	165.835.281	233.621.942	1.636.015.894
BPG sorkuntza	173.089.191	184.046.738	186.197.551	211.633.296	1.571.706.633
Enplegua (1)	4.547	4.842	4.893	4.232	4.355
Sarrerak Ogasuna	27.711.580	29.465.882	29.810.227	28.822.339	259.326.630

Eurotan adierazitako zenbatekoak.

- Enpleguko zenbatekoek enplegua mantentzen egindako ekarpena adierazten dute, ez ordea lanpostu berrien sorkuntza. Guztizkoak urteko batez besteko enplegua adierazten du, mantentzen lagundu izan dena, 1997. urtea kontuan hartu gabe, jardunaren ekitaldi osoa hartzen ez duelako.*
- 2001etik aurrera izandako eraginaren kalkuluek efektu zuzenak eta zeharkakoak ez ezik eragindako efektuak ere barne hartzen dituzte, aurreko urteetan kontuan hartu ez zirenak.*
- 2006. urtean izandako eragina kalkulatzeko biderkatzaile sektorialak eguneratu dira 2004ko Input-Output taulen arabera, ditugun azkenak alegia, 1999ko Input-Output taulen arabera kalkulutako aurreko urteetako eraginekiko.*